

## HERRITARREN FOROAREN EKONOMIA ETA GIZARTE IRAUNKORTASUNAREN 1. SAIOA

<b>Bilera antolatu duen organoa:</b>	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21en departamentua
<b>Deialdia egin duena:</b>	Hondarribiko udala
<b>Data, tokia eta ordua:</b>	2008ko irailaren 16a Hondarribiko Udaleko Pleno Aretoa Arratsaldeko 7ak
<b>Harremanetarako pertsona:</b>	Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): <ul style="list-style-type: none"><li>- Aitor Gonzalez</li><li>- Edurne Simón</li><li>- Naroa Susperregi</li></ul>
<b>Telefonoa:</b>	943 492 215
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:info@izadi21.net">info@izadi21.net</a>

<b>Gai-zerrenda:</b>	1-Etorritakoei ongietorria 2-Udal mahai teknikoek prestatutako Ekintza Planaren zirriborroaren eztabaida eta osaketa
----------------------	---

### PARTE HARTZAILEAK:

#### Banakako herritarrak:

- Maria Jesus Garin

#### Elkarteak:

- ACUBI (Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea): Belen Martinez

#### Erakundeak:

- Hondarribiko Udala: Gregorio Berrotaran (Landa Inguruneko zinegotzia), Ion Elizalde (Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia), Ixabel Olazabal (Euskara eta Hezkuntza zinegotzia), Maite Pelaez (Merkataritza, Gazteria, Turismo eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia), Mikel Mariskal (EAEko zinegotzia), Miren Legorburu (EAEko zinegotzia)
- Bidasoa bizirik: Izaskun Iridoy

#### Idazkaritza Teknikoa:

- Izadi 21: Aitor Gonzalez, Edurne Simón eta Naroa Susperregi

Bilerara bertaratutako partaide bakoitzaren aurkezpena egin ostean, lan-saioaren metodologia nolakoa izango zen azaldu zuen Ion Elizalde; Gizarte eta Ekonomia Iraunkortasunerako Mahaiari aztertzea dagokion 1. eta 2. lerro estrategikoetan jasotako jarduera programak eta horietan barneratutako ekintzak ordena jarraituz aztertzea, ekarpenak egin eta Ekintza Planaren zirriborroa osatzeko. Honen ondoren, eta lehenengo lerroari heldu aurretik, EAEko ordezkariak adierazi zuen ekintza planaren zirriborroan ez zirela kontuan hartu diagnosiari arlo ezberdinetan egindako ekarpenak, hau da: EAE taldeak diagnosiari egindako zenbait ekarpenek zein arloetan dagoen informazio faltari egiten zioten erreferentzia eta Udaletik, diagnosian beran baino, ekintza planean ekarpen horiek barnera zitezkeela erantzun zitzairen. Baina ekarpen horiek ez daude ekintza moduan udal mahai teknikoek egindako zirriborroan jasota eta lantzen ari den dokumentuan sartu beharko liratekeela adierazi zuten EAEko ordezkariak. Era berean, ekintza planaren zirriborroa osatzeko maiatza eta ekainean zehar antolatu ziren mahai teknikoetan oposizioko hautetsiei ez zitzaizela parte hartzen utzi gaineratu zuten. Ekarpenok egiteko oraingoa garai aproposa zela azaldu zuen idazkaritza teknikoak, eta aipatu ekintzak Foroko mahaien bilera hauetatik eratorriko den dokumentuan barneratuko zirela adierazi zitzairen bilerara hurbildutakoei, alegia, Ekintza Planaren behin-behineko bertsioan agertuko direla.

Jarraian ekintza planeko lehen bi lerro estrategikoen azterketari heldu zitzaion:

## LE1. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA

P.1.1. Tokiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea eta bertako enpresak sortzeko neurriak garatzeko programa:

1.1.1 Ekintza "Hondarribiko Puntalean, Enpresa berritzaileen Enpresa Zentroa sortzea, Mondragon Unibertsitateko ikasleen ekimenez sustatutako proiektuak bideratu ahal izateko": Bidasoa Biziriketik, ekintza planaren zirriborroa landu zen mahai teknikoetan proposatutako zenbait ekintza hasita zeudela eta beste zenbait aurreikusita daudela adierazi zuen. Azken horien artean honakoa aipa daiteke: Mondragon Unibertsitateko enpresa zentroa abian jartzea 2009rako aurrekontuetan barneratua legoke. Ekintza honen inguruan, EAEko ordezkariak Mondragoneko Unibertsitariari ez ezik, enpresa gunea hondarribitar ororentzako irekita egon beharko lukeela adierazi zuen. Bidasoa Biziriketako ordezkariak ideia Mondragon Unibertsitateko Enpresa Fakultatetik sortu zela azaldu zuen, eta aurrera begira, publikoari irekia izan zitezkeela adierazi. Honenbestez, 1.1.1 Ekintza birformulatzea eskatzen da eta ekintza planean modu honetara jasotzea: "Hondarribiko Puntalean enpresa berritzaileen Enpresa Zentroa sortzea".

P 1.2. Sortutako enpleguaren kalitatea eta kantitatea eta aukera berdintasuna sustatzeko programa:

1.2.2 Ekintza "Enplegu esparru berrietan lanbide prestakuntza martxan jartzea": EAEko ordezkariak ekintza honen inguruko azalpena eskatu zuen. Bidasoa Biziriketako ordezkariak adierazi zuen ikastaro hauen helburua eskualdean enpresa sektore berriak sortzea zela, energia berriztagarrien arloan esaterako.

Bestalde, EAE alderdiko ordezkariak programa honetan txertatzeko ekintza berri bat proposatu zuen: 1.2.4 Ekintza "Udalak azpikontratutako langileriaren egoera aztertzea, lan baldintza duinak izan ditzaten bermatuz".

P 1.3 Sortutako enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatu eta ezartzen laguntzeko programa:

Ekintza Planaren zirriborroan, programa honek ez zuen ekintzarik jasotzen. Lehen bilera honetan, ordea, hiru ekintza proposatu ziren bertan txertatzeko:

- 1.3.1 Ekintza "Hondarribiko enpresetan jardunbide korporatibo egokien gaiaren inguruan informazioa zabaltzeko kanpainak antolatzea"
- 1.3.2 Ekintza "Hondarribiko Udalaren kontratazio publikoko pleguetan gizarte klausulak progresiboki txertatzen joatea"
- 1.3.3 Ekintza "Gizarteratze eta gizarte ekonomia enpresen sorrera bultzatzea"

Ondoren, EAEko ordezkariak arrantza sektorearen krisia dela eta, Udalak arrantzaleen kofradiari laguntza eskaini diezaiokeela aipatu zuen. Horretarako, Udalak Kofradia lagun dezake bere egitura berrantolatze lanetan. EAEko ordezkariaren hitzetan, gogorarazi behar da Hondarribiko arrantzaleek egiten duten arrantza era (selektiboa) iraunkortasunaren ikuspuntutik (kasu honetan, natur baliabideen agortzea ekiditea) egokia litzateke, nahiz eta oraindik Kofradiako kideekin lana egiteko badagoen ingurumenaren aldetik jarduerak eragin txikiagoa izan dezan (adibidez: itsasontzian sortutako hondakinen kudeaketa egokia egitea).

P1.4 Tokiko turismo iraunkorra sustatzeko programa:

EAEko ordezkariak kontuan hartu beharreko hiru ekintza proposatu zituen:

- 1.4.7 Ekintza "Bertako artista kopuru ugaria dela eta, udalerrian sortutako artea sustatzea"
- 1.4.8 Ekintza "Herri arrantzalearen izaera sustatzea"
- 1.4.9 Ekintza "Alde zaharreko sustapen plana diseinatzea, turismoaren ikuspuntutik erakargarria izan dadin". Azken proposamen honen inguruan Maite Pelaezek komentatu zuen merkataritza suspertzeko plan bat badagoela, eta, besteak beste, ekintza hori barneratzen duela.

1.4.1 Ekintza "Goiko Errotako natura interpretatzeko zentroa martxan jartzea, udalerriko natur ondarea herritarren zein turisten artean ezagutzera emateko asmoz": Goiko Errotaren proiektua zein egoeratan aurkitzen den galdetu zuten, eta Ion Elizalde dagoeneko proiektua enpresa bati esleitu zaiola azaldu zuen. Era berean, Guadalupeko gotorlekuaz ere galdetu zuten. Ionek adierazi zuen proiektu bideragarri baten bidez biziberritu beharko litzakeela eremua.

P 1.5. Udalerrian sortutako produktuen kalitatea bultzatu eta horien inguruko promozioa egiteko programa:

EAEko ordezkariak Hondarribiko nekazariak ekoiztutako produktuak erosteko aukera emango lukeen gune baten beharra azpimarratu zuen. Egun baserriarren produktuak erosteko Irungo merkatura joan beharra dagoela azaldu zuen, eta ongi egongo litzatekeela herrian bertan halako merkatu bat egotea. Ion Elizalde lehenago eskaera eta eskaintzarik badagoen aztertzeke prospekzio bat egin zitekeela adierazi zuen, eta horren arabera, hasiera batean hilean behin merkatuak egin eta pixkanaka maiztasuna handitu daitekeela.

Honenbestez, proposamena 1.5.3 Ekintza gisa jasotzen da "Hondarribiko nekazal produktuen eskaintza eta eskaera aztertu, tokiko nekazal eta abeltzainen produktuez osatutako merkatu baten ezarpena bideragarria den ziurtatuz eta horrela bada, merkatua abian jartzea".

P1.6. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa:

Lehen 1.4 programan adierazi den bezala ("Tokiko turismo iraunkorra sustatzeko programa"), artearen sustatzea eta artisauak babesteari garrantzizkoa iritzi zion EAE alderdiko zinegotziak. Frantzia modu estentsiboan eta iraunkortasunaren ikuspuntutik desegokiak diren arrantzatzearen kontrako kanpainak abian jarri zituzten bezala, hemen hegalmotza harrapatzeko bultzada handiagoa eman beharko litzaiokeela ere adierazi zuten.

Bestalde, programa honetan txertatzeko lau ekintza gehigarri proposatu ziren:

- 1.6.1 Ekintza "Nekazal lurak babesteko neurriak barneratu Plan Orokorren osaketan". Zentzu honetan, aipatu Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana tramitazio bidean dagoela, eta bertan jasotzen diren irizpideak kontuan eduki beharko liratekeela Plan Orokorren osaketan.
- 1.6.2 Ekintza "Herriko hezkuntza zentroekin elkarlanean, landa inguruneko balore positiboak zabaldu"
- 1.6.3 Ekintza "Nekazal lurren inbentario bat egin"
- 1.6.4 "Hondarribiko nekazarien artean nekazaritza ekologikoa sustatu"

P 1.8. Dibertsifikazioa bilatuz, lurzoru behar txikia eskatzen duten eta balio erantsi altua duten ekonomia jarduerak sustatzea:

1.8.3 Ekintza "Bertako gremioen ogibidea gal ez dadin, horiek kokatzeko lurzoruak aurkitzeko bideak martxan jarri": Ekintza honen inguruan, bertako artisauentzako lurzoruak aurkitzeaz ari denean, "lurzorua" baino "tokiak" bilatzea egokiagozat jo zen. Hortaz honela jasoko litzateke: 1.8.3 Ekintza "Bertako gremioen ogibidea gal ez dadin, horiek kokatzeko tokiak aurkitzeko bideak martxan jarri".

## LE2. BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA

P 2.2 Udalerrian aukera berdintasuna eta elkarbizitza baketsua sustatzeko programa:

EAE alderdiko ordezkariak oso larritzat jo du aukera berdintasuna eta elkarbizitza baketsua izenburutzat duen programa batean Hondarribiko Alardeak aipamenik ez izateak. Bertaratutako gainerako zinegotziek gaia ekintza planean sartzeko modukoa ez zela iritzi zioten, irtenbidea udaletik baino herritarrengandik etorri behar duelako. Bestalde, arazo hori ekintza planean jasotzekotan elkarbizitzako beste zenbait arazo ere bertan jaso beharko liratekeela adierazi zuten (esaterako: bizkartzainekin dabiltzan zinegotzien errealitatea).

P 2.3 Etxebizitza politika iraunkorra garatu eta bermatzeko programa:

2.3.2 Ekintza "Presa-Damarriko etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia egotea aztertu": EAEko ordezkariak ekintza hau birformulatzea eskatu

zuten, gizarte alokairua bultzatzeaz gain, Udalak alokatutako etxeetan bizitzeko aukerak bermatzea eskatuz. Azken honen inguruan, Ionek adierazi zuen, berak aztertzea soilik jarriko lukeela, Muliatego gizarte alokairuaren funtzionamendua nolakoa den ikusi arte, ondoren ildo horretan erabakiak hartzeko. Honenbestez, ekintza modu honetan jasoko litzateke: "Presa-Damarriko etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia egotea aztertu eta bermatzeko ahalegina egin, Muliatego esperientzia kontuan izanik".

2.3.3 Ekintza "Etxebizitza publikoen promozioen pleguetan gizarte aldagaia barneratu, horretarako aurrez Hondarribiko familia egiturari buruzko ikerketa egin beharko delarik etxebizitzaren tipologia zehaztu baino lehen". PSE/EEko ordezkariak 2.3.3 ekintzari dagokionez, etxebizitza publikoak jasotzeaz gain tasatuak ere txertatzea eskatu zuen. Honenbestez, ekintza modu honetan jasoko litzateke: 2.3.3 Ekintza "Etxebizitza publikoen promozioen eta tasatuen pleguetan gizarte aldagaia barneratu, horretarako aurrez Hondarribiko familia egiturari buruzko ikerketa egin beharko delarik etxebizitzaren tipologia zehaztu baino lehen".

Ekintza honekin erlazionatuta, etxebizitza eskatzen duten familiei buruzko azterketa eta hutsik dauden etxebizitzaren inguruko ikerketa egitea proposatu zen. Ekintzok 2.3.4 eta 2.3.5 Ekintza gisa jasoko dira.

Halaber, PSE/EEko ordezkariak gizarte alokairuaren sustapenaren garrantzia azpimarratu zuen, eta ekintza gehigarri bat izan zedila eskatu. 2.3.6 Ekintza honela geratuko litzateke: "Gizarte alokairua etorkizuneko apustu eta aukeratzat hartzea, horretarako, aurrez alokairuaren inguruko ikerketa bat aurrera eramanez".

P 2.5 Biztanleen osasuna babestu eta osasun zerbitzuen hobekuntza sustatzeko programa: Osasun zentroaren handitzeari dagokionez (2.5.1 ekintza) azken berriak azaldu zituen Ionek. Antza denez, eraikin berria konpartitua izango dela jasotzen da proiektuan, eta hori egokia ez dela iritzi zion EAE-ANVko ordezkariak.

Bestalde, ekintza gehigarri bezala, beilatokia eta amatasun zerbitzuak jartzeko aukera aztertzea proposatu zen. 2.5.4 Ekintza: "Herrian amatasun zerbitzua eta beilatokia ezartzeko aukerak aztertu".

P 2.6 Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa:

Programa honen barruan hirugarren adineko pertsonentzako Betharrango eraikina eraikitzea jasotzea proposatu zen. Proposamen hau ekintza gehigarri gisa jaso ordez, egokiagoa ikusi zen 2.6.1 ekintzan txertatzea, ondorengo eran geratuz: "Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen beharrak ase eta Betharramen 3. adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa jartzea".

P 2.7 Gazteria osasuntsu eta aktibo bat sustatzeko programa:

2.7.3. Ekintza: "Gazteriari zuzendutako ekimenak bultzatu, horretarako gazteen arteko lankidetzak/elkarlan sare sendo bat sortzeko pausoak eman". Gazteen garapen sozialerako autogestioaren balioaz hitz egin zen, eta horregatik, gazteriarentzako zuzendutako ekimenak landu beharko liratekeela adierazi zen.

Honela, 2.7.3 ekintza modu honetara egokituko litzake: "Gazteriari zuzendutako ekimenak bultzatu, horretarako gazteen arteko lankidetzak/elkarlan sare sendo bat sortzeko eta autogestioa bultzatzeko pausoak emanez".

EAEko ordezkariak laugarren ekintza bat proposatu zuten, gazteriaren pertzepzioaren inkesta bat egitea, hain zuzen ere. Kontuan hartuz diagnosiaren ekarpenen txostenean gazteriaren inguruko ikerketa bat egiteko beharra aipatu zutela, idazkaritza teknikoaren ustez ikerketa bat egitea pertzepzio inkesta bat egitea baina izaera orokorragoa duenez, hobe litzateke ekintza berriaren titulua honakoa izatea: 2.7.4 Ekintza "Gazteei zuzendutako ikerketa bat aurrera eraman (aisialdi ohiturak, udal zerbitzuen erabilpena, autogestio moduan funtzionatzen al duten, e.a. bezalako alderdiak ezagutzeko asmoz)". Beraz, pertzepzio inkesta aipatu ekintza exekutatzeko lagunduko duen jardueraz zehatz bat izango litzateke.

P 2.8. Udalerriko kultura ekipamenduen eskaintza hobetu eta kultura jardueren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa:

2.8.3 Ekintza "Itsas portuaren eremuan Auditorium berria eraiki". EAEko ordezkariak herriko kultur beharren inguruko azterketa bat egitea eskatu zuten, zer dagoen jakin (zein elkarte dauden, zein motatakoak, zein kultura eskaintza dagoen, etab.) eta horren arabera auditorioa eraiki beharra dagoen eta zein ezaugarri izan beharko lituzkeen jakiteko. Gainera, ezer diseinatu aurretik zein programazio edo kultura eskaintza egingo den zehaztearen beharra azpimarratu zuten, horren arabera, eraikin mota bat edo beste hobesteko.

Ion Elizalde azaldu zuen jadanik bazegoela herriko kultura beharren ikerketa bat egina. Hortaz, 2.8.3 ekintza berridatzi eta modu honetan jasoko litzateke: 2.8.3 Ekintza "Herriko kultura beharren inguruko azterketan oinarrituz, auditorioa eraiki beharra dagoen eta zein ezaugarri izan beharko lituzkeen jakin, betiere, eskainiko diren ekimen kulturalen beharretara egokitua izan behar duela kontuan hartuz".

P 2.9 kirol ekipamendu eta kirol eskaintzaren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa:

Hondarribiko Beteranoen Kaiarekin zerikusit duen ekintza bat proposatu zen. 2.9.4 Ekintza hain zuzen ere: "Beteranoen Kaian itsasontzi txikiak sartzeko gunea egokitu"

P 2.10 Euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzeko programa: EAE alderdiko ordezkariak Udalaren euskalduntze planaren egoeraz galdetu zuten. Ion Elizalde, ikerketa egina dagoela eta emaitza nahikoa positiboak direla azaldu zuen, Eusko Jaurlaritzaren baremoak aintzat hartuz behintzat.

Hondarribiako aldezkeriari dagokionez, EAEko ordezkariak hasieran zuen eduki-maila jaitsi egin dela eta egun "udal panfleto" gisa erabiltzen dela adierazi zuen. Hasierako euskarazko komunikazio baliabide kutsua berreskuratzeko eskaera egin zen. Honenbestez, Ekintza berri bat jasotzen da programa honetan: 2.10.5 Ekintza "Udal aldezkeriak hasieran zuen euskarazko komunikazio kutsua berreskuratu".

Bilera gaueko 10etan amaitu zen.

Irailaren 16ean izandako foroan egindako proposamenak jaso eta Ekintza Planeko 1. eta 2. lerroak osatu ditugu. Mahai honen bileran adostutako ekintzen birmoldaketak nahiz ekintza berriak kolore urdinez agertzen dira. Bi atalok hurrengo orrietan aurkituko dituzue:

HONDARRIBIKO IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA			
ZENBAKIA	LERRA ESTRATEGIKOAREN IZENBURUA		
LE 1	TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA		
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA	
	P 1.1	Tokiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea eta bertako enpresak sortzeko neurriak garatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.1.1	Hondarribiko Puntalean enpresa berritzaileen Enpresa Zentroa sortzea
		E 1.1.2	Enpresen arteko elkargunea sortu, ezarrita dauden enpresen arteko ekintzen koordinazioa eta sare-lana bultzatzeko
		E 1.1.3	Bidasoa Biziriken ekimenez, ideia berritzaileak enpresetan ezartzea sustatu, honetarako beharrezko aholkularitza eskainiaz
		E 1.1.4	Eskualdeko web orri baten bidez, enpresek jarduera ekonomikoak martxan jartzeko erabilgarri dauden lokalen berri ematea
		E 1.1.5	Eskualdeko enpresek eskainitako zerbitzuak eta produktuak jasoko dituen prestigio katalogoa lantzea
		E 1.1.6	Eskualdeko enpresen sorrera bultzatuko duen urteko azoka antolatzea
		E 1.1.7	Eskualdeko enpresen erabilerarako onuragarria izan daitezkeen datu sozio-ekonomikoen elkar trukea eta difusioa sustatzea. ("Erabat" Bidasoako Hiri Behatokia sustatu; eskualdeko errealitateari buruzko informazio iturri modura, eta baita, eskualdeko arlo sozio-ekonomikoko erabakiak hartzen lagun dezakeen tresna moduan ere, "Urban Audit" behatokian Hondarribiko udalaren parte hartzea bultzatu, ...)
		E 1.1.8	Eskualdeko kontratisten eta subkontratisten mugaz gaindiko katalogoa sortu
	P 1.2	Sortutako enpleguaren kalitatea eta kantitatea eta aukera berdintasuna sustatzeko programa	
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 1.2.1	Irungo Anaka auzoan Espazioa izeneko bulegoa irekitzea (Bidasoa Bizirik enplegua bultzatzeko eta heziketa hobetzeko sortutako bulegoa) eta Parisekin elkarlanean Ogibide Hirien Mundu Sarean parte hartzea sustatzea	



		E 1.2.2	Enplegu esparru berrietan lanbide prestakuntza martxan jartzea
		E 1.2.3	"Emakumeen eguneroko bizitzarako autoenplegurako programa"ri jarraipena ematea
		E 1.2.4	Udalak azpikontrataturako langileriaren egoera aztertzea, lan baldintza duinak izan ditzaten bermatuz
		E 1.2.5	Hondarribian egon daitekeen murgildutako enpleguari buruzko ikerketa bat egin
		E 1.2.6	Hondarribian autonomo moduan lan egiten duten pertsonen zein sektoretan lan egiten duten ezagutzeko ikerketa bat egin
		E 1.2.7	Hondarribitik kanpo lan egiten duten herritarrek zein udalerritan eta zein sektoretan lan egiten duten ezagutzeko ikerketa aurrera eraman
		E 1.2.8	Hondarribiko ekonomia sektoreen arteko desorekaren inguruko azterketa bat aurrera eraman horretarako iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz
	P 1.3	Sortutako enprekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatu eta ezartzen laguntzeko programa	
		E 1.3.1	Hondarribiko enpresetan jardunbide korporatibo egokien gaiaren inguruan informazioa zabaltzeko kanpainak antolatzea
		E 1.3.2	Hondarribiko Udalaren kontratazio publikoko pleguetan gizarte klausulak progresiboki txertatzen joatea
		E 1.3.3	Gizarteratze eta gizarte ekonomia enpresen sorrera bultzatu
	P 1.4	Tokiko turismo iraunkorra sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.4.1	Goiko Errotako natura interpretatzeko zentroa martxan jartzea, udalerriko natur ondarea herritarren zein turisten artean ezagutzera emateko asmoz
		E 1.4.2	Jarduera ezberdinen bidez turismo berdea sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumen heziketa programa baten bidez Hondarribian kokatutako natur intereseko guneen zabalkuntza</li> <li>- Txingudiko badian zehar oinezko eta bizikletaz ibiltzea sustatzeko balio izango duen liburuxkaren argitalpena.</li> </ul>
		E 1.4.3	Hondarribiko historiaren interpretazio zentroa eraiki eta martxan jarri, udalerriko ondare historiko eta kulturala ezagutzera eman eta

			potentziazteko
		E 1.4.4	Foru Aldunditik martxan jarri nahi den kostako ibilbideen proiektua udaletxe mailatik bultzatu, jarraipena egin eta Aldundiarekin koordinatu
		E 1.4.5	Mendiko bideen udal programari jarraipena eman eta ondoren herritarrei komunikatu
		E 1.4.6	Hondarribia "Erdi aroko hirien sarea"ko kide izanik, proiektuari jarraipena eman produktu turistiko berriak sorraraziz
		E 1.4.7	Bertako artista kopuru ugaria dela eta, udalerrian sortutako artea sustatzea
		E 1.4.8	Herri arrantzalearen izaera sustatzea
		E 1.4.9	Alde zaharreko sustapen plana diseinatzea, turismoaren ikuspuntutik erakargarria izan dadin
	P 1.5	Udalerrian sortutako produktuen kalitatea bultzatu eta horien inguruko promozioa egiteko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.5.1	Hondarribian ekoizten diren produktuak identifikatu eta ondoren produktu horien ezaugarriak eta onurak ezagutzera emateko asmoz, horien inguruko komunikazioa indartu; hegal motzari buruzko dibulgazio jardunaldiak antolatuz, eta abar.
		E 1.5.2	Hondarribian antolatzen diren udalerriko produktuei buruzko feriak egiten jarraitu eta presentzia indartu
		E 1.5.3	Hondarribiko nekazal produktuen eskaintza eta eskaera aztertu, tokiko nekazal eta abeltzainen produktuez osatutako merkatu baten ezarpena bideragarria den ziurtatzeko eta hala bada, martxan jartzeko
	P 1.6	Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.6.1	Nekazal lurak babesteko neurriak barneratu Plan Orokorraren osaketan
		E 1.6.2	Herriko hezkuntza zentroekin elkarlanean, landa inguruneke balore positiboak zabaldu

		E 1.6.3	Nekazal lurren inbentario bat egin
		E 1.6.4	Hondarribiko nekazarien artean nekazaritza ekologikoa sustatu
	P 1.7	Udalerriko merkataritza sektorea indarberritzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.7.1	Hondarribiko merkataritza indarberritzeko plana diseinatu eta bertako merkataritza suspertzeko finkatutako neurriak abiarazi
	P 1.8	Dibertsifikazioa bilatuz, lurzoru behar txikia eskatzen duten eta balio erantsi altua duten ekonomia jarduerak sustatzea	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.8.1	Aisialdira zuzendutako ekintzak bultzatzen dituzten jarduera ekonomikoak sustatu
		E 1.8.2	Zubietako lurretan teknologia berriak, garbiak eta berritzaileak bultzatzen dituzten enpresa ekimenak sustatu
		E 1.8.3	Bertako gremioen ogibidea gal ez dadin, horiek kokatzeko tokiak aurkitzeko bideak martxan jarri
	P 1.9	Lana, bizitza pertsonala eta familia bizitza kontziliatzen laguntzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 1.9.1	"Gertu: egunero merkatua sortuz" eta "Bultzatu" programaren baitan kontziliazioa bultzatzeko eskaintzen diren produktuak ezagutzera eman, formazioa eskaini eta kontziliazioaren onurak ezagutzeko ekintzak aurrera eraman
		E 1.9.2	Hirugarren sektorean kontziliazioa errazte aldera, aipatu sektorearen kontratazioari buruzko ikerketa bat egin, ondoren enpresariei zein langileei ordutegiaren inguruko informazioa emateko (lanaldi erdiaren onurak, eta abar. kontziliazioa errazteko asmoz)
LE 2	<b>BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA</b>		
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA	
	P 2.1	Behar gehien duten biztanleen egoera ekidin eta arintzeko neurriak garatzeko programa, helburu horretara bideratutako egitasmoen etengabeko hobekuntza bultzatuz	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.1.1	Gizarte eragileen arteko harremana indartu eta lankidetzaren/elkarlanerako harremanen sarea hobetzea
		E 2.1.2	Prebentzio Komunitarioko Plan berriaren barneratutako ekintzak

LE 2			aurrera eraman
		E 2.1.3	Pobreziaren mugan egon daitezkeen herritarren inguruko ikerketa bat egin
	P 2.2	Udalerrian aukera berdintasuna eta elkarbizitza baketsua sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.2.1	Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako udal plana berrikusi, eta beharrezkoa dela ondorioztatuz gero, plan berria diseinatu eta martxan jarri
		E 2.2.2	Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean herri mailan kontzientziatze kanpainak antolatu, lehenik udalak enpresa eredugarriekin aliantzak bilatuz
		E 2.2.3	Aukera berdintasuna bizitzako arlo eta sektore ezberdinetan lantzeko eta aurrera pausoak emateko asmoz, beharrezkoak diren bideak jorratu (eskola mailan, lan munduan, eta abar.)
		E 2.2.4	Hondarribiko biztanleria etorkinaren errealitatea ezagutzeko ikerketa bat aurrera eraman aukera berdintasunaren bidean aurrera pausoak emate aldera
	P 2.3	Etxebizitza politika iraunkorra garatu eta bermatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.3.1	Muliateko etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia bermatu
		E 2.3.2	Presa-Damarriko etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia egotea aztertu eta bermatzeko ahalegina egin, Muliateko esperientzia kontuan izanik
		E 2.3.3	Etxebizitza publikoen eta tasatuen promozioetako pleguetan gizarte aldagaia barneratu, horretarako aurrez Hondarribiko familia egiturari buruzko ikerketa egin beharko delarik etxebizitzaren tipologia zehaztu baino lehen
		E 2.3.4	Etxebizitza eskatzen duten familien ezaugarriei buruzko azterketa egin
	E 2.3.5	Hondarribian hutsik dauden etxebizitzaren inguruko ikerketa egin	
	E 2.3.6	Gizarte alokairua etorkizuneko apustu eta aukeratzat hartzea, horretarako, aurrez alokairuaren inguruko ikerketa bat aurrera eramanez	

LE 2	P 2.4	Hezkuntza zerbitzuen eta hezkuntza ekipamenduen hobekuntzarako programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.4.1	Loraitzeko haurtzaindegia eraiki eta martxan jartzea
	E 2.4.2	Muliateko eremuan hezkuntza ekipamendu egokia martxan jartzea, horretarako Eusko Jaurilaritzarekin hezkuntza sailarekin koordinatuz	
	P 2.5	Biztanleen osasuna babestu eta osasun zerbitzuen hobekuntza sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
E 2.5.1		Osasun zentroaren handitzea gauzatzeko beharrezko koordinazioa lanak aurrera eraman Osakidetzarekin	
E 2.5.2		Osakidetzari Hondarribiko mediku espezialisten eskaera mailaren inguruko ikerketa bat egitea eskatzea	
E 2.5.3		Bidasoako Ospitalera doan garraio publikoaren eskaintzari lotutako hobekuntza posibleak aztertu beste erakunde eskumendunekin elkarlanean	
E 2.5.4	<a href="#">Herrian amatasun zerbitzua eta beilatokia ezartzeko aukerak aztertu</a>		
P 2.6	Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa		
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 2.6.1	<a href="#">Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen beharrak ase eta Betharramen 3. adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa jartzea</a>	
LE 2	P 2.7	Gazteria osasuntsu eta aktibo bat sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	E 2.7.1	Prebentzio Komunitarioko udal zerbitzutik antolatutako bizitzeko era osasuntsuak sustatzeko ekintzak egiten jarraitu eta etengabeko hobekuntza sustatu	
	E 2.7.2	Gizarte ongizate sailetik aurrera eramaten diren jardueren jarraipena egin eta jardueren hobekuntza bultzatu	
	E 2.7.3	<a href="#">Gazteriari zuzendutako ekimenak bultzatu, horretarako gazteen arteko lankidetzak/elkarlan sare sendo bat sortzeko eta autogestioa bultzatzeko pausoak emanaz</a>	
	E 2.7.4	<a href="#">Gazteei zuzendutako ikerketa bat aurrera eraman (aisialdi ohiturak, udal zerbitzuen erabilpena, autogestio moduan funtzionatzen al duten, e.a. bezalako alderdiak ezagutzeko asmoz)</a>	
P 2.8	Udalerriko kultura ekipamenduen eskaintza hobetu eta kultura jardueren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa		

		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.8.1	Arma plazako Historiaren Interpretazio Zentroa eraiki (1.4.3 ekintza bera)
		E 2.8.2	Musika Eskola berria eraiki eta martxan jartzea
		E 2.8.3	<a href="#">Herriko kultura beharren inguruko azterketan oinarrituz, auditorioa eraiki beharra dagoen eta zein ezaugarri izan beharko lituzkeen jakin, betiere, eskainiko diren ekimen kulturalen beharretara egokitua izan behar duela kontuan hartuz</a>
		E 2.8.4	Egungo udal liburutegiaren espazioaren handitzea
		E 2.8.5	Herriko kultur programazioan herritarrek ekintza proposamenak egitea sustatzea
		E 2.8.6	Gazteentzat interesgarria den informazioa udal liburutegian ere egotea (beken ingurukoa, kulturari buruzkoa,...)
	P 2.9	Kirol ekipamendu eta kirol eskaintzaren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.9.1	Amuteko kirolgunea martxan jarri
		E 2.9.2	Bela-eskola martxan jarri
		E 2.9.3	Herritar orori zuzendutako kirol ariketak egiteko guneak bultzatu herriko aisialdi guneetan
		E 2.9.4	<a href="#">Beteranoen Kaian itsasontzi txikiak sartzeko gunea egokitu</a>
		E 2.9.5	<a href="#">Hondarribian praktikatzen diren kirolen eta kirol bakoitza praktikatzen duten pertsonen inguruko ikerketa bat gauzatu</a>
	P 2.10	Euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.10.1	Euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko komunikazio kanpaina bateratuak bultzatu (hezkuntza zentroak-Udala, elkarteak-Udala, ... koordinatuz)
		E 2.10.2	Euskarazko zerbitzuen gida bat diseinatu eta herrian zabaldu
		E 2.10.3	Hondarribiko elkarteekin elkarlanean aritu, Euskararen normalizazio prozesuan aurrerapausoak emateko
		E 2.10.4	Euskararen ezagutza eta erabilpen mailari buruzko azterketa soziolinguistikoa landu, hizkuntzaren erabilpena bultzatzeko ekintzen hobekuntza sustatzeko

		E 2.10.5	Udal aldizkariak hasieran zuen euskarazko komunikazio kutsua berreskuratu	
		E 2.10.6	Hondarribiko euskalkiei buruzko multimedia materiala sortzea	
		E 2.10.7	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eraketan eta ezarpenean herritarrek izan duten parte-hartzearen inguruko azterketa bat egin	
		E 2.10.8	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren nahiz Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantzaren inguruko betetze mailari buruzko azterketa bat egin	
	P 2.11	Kontsumo ohitura arduratsu eta iraunkorrak sustatzeko programa		
		EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA
		E 2.11.1	Kontsumo ohitura arduratsuen inguruko komunikazioa kanpainak egin	
		E 2.11.2	Natur baliabideei buruzko kontsumoari lotutako datu zehatzak herritarren artean ezagutarazi	